

# EUSKERAZALEAK

## BIZIA LENENGO

«Gauza atsegiña ta apaingarria da, aberriaren alde bizi emotea». Ori iñoan antxiñako erroma'tarrak latinez esaten eta idazten eben esaldi gogoangarri batek.

Eta Euskalerrria'ren kondairara begitu ezkerro, ori olan izan dala ezin ukatu geinke: Gogoratu esaterako gudaldian il ziran ainbeste gazte adoretsu ta euskaldun gartsu eta arrezkero, edo epailarien erabagi gogorrek edo agintari biotz- gogorraren oztasun bildurgarriak eriotzara bialdu dituanak edo askatasunaren billa ekin dabelako naiz aberria biztuten ardura-tu diralako izkillupean jausi diran abertzale ta euskaltzale sendoak.

Baiña urrago diran jazokizunak ez dabe beti olako argitasuna agertzen. Asmoak eurak be sarritan oker-antza artzen dabe. Eriotza batzun aurrean Euskalerrriak alkartuta ezetz erantzun dau. Jose Mari Ryan'ena daukagu orain gogoan.

Bere aldetik, erriaren aldetik, begituta bai esan lei zalantza barik Erroma'tarrak esaten ebena: «Aberriaren aurrerabidean etorri jako eriotzea, aintzatsua bere azkena». Baiña, beti jazoten dan lez, bere etxekoai ta ume txikiai begira, gauza samiña ta negargarria.

Iltzailleai begiratu ezkerro, euskaldunak izan dirala gogoraturik, mingarriagoa ta lotsagarria be bai. Orregaitik erriak eta politika-alderdiak erantzun argia ta jentetsua emon dabe uri-buru eta errietako agerpenetan, naitza orretan be betiko nastatzaille ta aurkalariak izan, Leizaola jaun goragarria ta ainbeste urtetan Euskalerrriaren askatasunaren ezaugarri izan doguna zaurituta ikusteraño, Dana dala, onek be, urtez aurreratua izan arren, gauza aunditzat artu dau erriaren alde zauritua izatea.

Gure Erriak ba-dauka, itxurea danez, biziteko ta aurrera jokatzeko, bakea ta eskubi-deak lortzeko guraria. Bizi nai daben erriak ez dira ain errez ilten.

Bizia lenengo. Erriaterren bizia. Erriaren bizia.

GAMIZ

### GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria  
Bizkaieraz  
Gipuzkoeraz  
Erderaz  
BARRIAK ETA ARAZOAK

### SASKI-NASKI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA  
Bizkaieraz  
Gipuzkoeraz  
munduko goraberak, jazokizunak, barregaiak...